



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

ETXEKO HONDAKINAK BILTZEKO

DEBAGOIENeko ORDENANTZA ARAUTZAILEA

ZIOEN AZALPENA

Debagoieneko Mankomunitateak, bere estatutuen 12. artikulua araberak, besteak beste, hiri hondakin solidoen bilketa eta tratamendu zerbitzua ematea du helburu, bera osatzen duten udalerrien esparruan; hau da, Antzuolan, Aretxabaletan, Arrasaten, Bergaran, Elgetan, Eskoriatzan, Leintz-Gatzagan eta Oñatin.

98/CE Zuzentarauaren (Hondakinen esparru-zuzentarauaren) aldarrikapenak hondakinak kudeatzeko esparru juridiko berria ezartzen du Europar Batasunean, eta hazkunde ekonomikoaren eta hondakin-ekoizpenaren artean dagoen lotura apurtzeko tresnak ematen ditu, bereziki azpimarratuz prebentzioa, hau da, produktu bat hondakin bihurtu aurretik hartutako neurrien multzoa, eta hori sorturiko hondakinen kopurua eta beraien gai arriskutsuak murrizteko, baita giza osasunean eta ingurumenean izan ditzaketen ondorio kaltegarriak ere. Honela, hierarkiaren printzipioa sartzen du hondakinen ekoizpen eta kudeaketan: ondorioz prebentzioa, berrerabiltzeko prestatzea, birziklatzea edo balorizatzeko beste era batzuk bilatu behar dira, eta Europako Batasuna "birziklatzen duen gizarte" bihurtu nahi du, bide batez, klima-aldaketaren aurkako borrokari laguntzeko.

Zuzentaru hau barne-ordenamendu juridikoan sartzea uztailaren 28ko 22/2011 Legearen, hondakin eta lurzoru kutsatuei buruzkoaren bidez egin zen, aurrez indarrean zegoen apirilaren 21eko 10/1998 Legea, Hondakinei buruzkoa, ordezkatu zuelarik.

22/2011 Legearen bigarren xedapen iragankorrak ezartzen duenez, "Toki Erakundeek Lege honen 12.5 artikuluan ezarritako ordenantzak onartu behar dituzte, 2 urteko epean Lege hau indarrean sartzen denetik aurrera. Horiek egon ezean, Autonomia Erkidegoek onartzen dituzten arauak aplikatuko dira".

Debagoieneko Mankomunitateak ez du etxeko hondakinen bilketa-zerbitzua arautzeko ordenantzarik.

Bestalde, atez ateko bilketa-sistema pixkanaka Mankomunitateko hainbat udalerritan ezartzeak beharrezko egiten du zerbitzu berrira egokitutako ordenantza bat onartzea

I TITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Helburua.

1. Ordenantza honek, Debagoieneko Udalek Mankomunitatean utzi dituzten Udal eskuduntzen barruan, Debagoieneko Mankomunitateko 8 udalerriko etxeko hondakinen bilketa arautzea du helburu.



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

2. Era berean, kudeaketa bideratzen duen Debagoieneko Mankomunitatearen eta zerbitzua erabiliko dutenen arteko harremana arautzen du, alde bakoitzaren eskubide, eginbehar eta betebeharrak zehaztuz.

2. artikulua. Aplikazio eremua.

Ordenantza honen lurralde eremua Debagoieneko Mankomunitatea osatzen duten 8 udalerrriak dira: Antzuola, Aretxabaleta, Arrasate, Bergara, Elgeta, Eskoriatza, Leintz-Gatzaga eta Oñati.

Ordenantza honetan araututako hondakin bilketa zerbitzuari dagozkion lanak lurzoru publikoan egingo dira. Salbuespenez, zerbitzuaren onerako denean, Mankomunitateak lurzoru pribatuan sartzea erabaki dezake, aurrez erabiltzailearekin enpresa jardueren koordinazio esparruan dagoen protokoloa sinatuz.

3. artikulua. Zerbitzua derrigorrez erabili eta hartzea.

Debagoieneko Mankomunitateari dagokio Ordenantza honetan ezarritako moduan etxeko hondakinak bildu eta garraiatzeko zerbitzua ematea, 22/2011 Legearen 12.5 artikuluan xedatutakoaren, hala badagokio, Euskal Autonomi Erkidegoak xeda dezakeenaren eta ekoizlearen erantzukizun erantsiaren arloan dagoen araudi sektorialaren esparru juridikoan.

Hondakin horiek dituzten pertsonak, betiere eskualdean bertan sortutako hondakinak badira, derrigorrean Debagoieneko Mankomunitateari eman behar dizkiote hondakin horiei balioa emateko edo elimina ditzan, Ordenantza honetan zehaztutako baldintzetan.

Halaber, Debagoieneko Mankomunitateari dagokio zainketa eta ikuskaritza lanak egitea, bai eta bere eskumenen alorrean zigorrek ezartzearen ardura ere.

4. artikulua. Araudi aplikagarria.

Ordenantza honek Hondakin eta Lur Kutsatuei buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legeari eta gainontzeko xedapen aplikagarri jarraitzen die.

5. artikulua. Hondakinen definizioa.

Ordenantza honen ondorioetarako «hondakin» gisa hartuko da: hondakinei buruz goian aipaturiko 22/2011 Legearen lehen tituluaren lehen kapituluaren definitutakoak. (bereziki 3. eta 6. artikuluetan)

6. artikulua. Hondakin motak.

Hondakinak tratatzeko eraren eta beraien izaeraren arabera taldekatu egingo dira. Hondakin talde bakoitzari hondakin mota deituko diogu.

7. artikulua. Egutegiak eta ekarpen guneak.

1. Mankomunitateak araudi honetan jasotzen diren zerbitzu guztien egutegia urtero argitaratuko du.

2. Zerbitzu bakoitza non emango den eta erabiltzaileek zerbitzua non erabili behar duten Mankomunitateak urtero argitaratuko du.



3. Mankomunitateak urtean zehar egutegia eta zerbitzu puntuak alda ditzake, aldaketak argitara emanez..

II TITULUA

BILKETA ZERBITZUAK

I. KAPITULUA: ATEZ ATE BIDEZKO BILKETA SISTEMA

8. artikulua. Atez ate biltzen diren hondakinak.

Ordenantza honen ondorioetarako, atez-ateko hondakin bilketaren barruan ondoko hondakin hauek sartuko dira:

- a) Etxeko kontsumo eta elikadurak sortutako hondakinak eta detrituak, papera, ontziak, bilgarriak (enbalajeak), kartoiak eta orokorrean edozein etxetan sortutako hondakinak, aurrez Mankomunitateak jarritako egun, ordu, modu eta lekuetan biltzeko.
- b) “a)” atalean aipatutakoen antzeko jatorria duten hondakinak, baina dendetan, industrietan eta zerbitzuetan sortuak, aurreko atalean adierazitako baldintzetan prestatuta.
- c) “a)” atalean aipatutakoen antzeko jatorria duten hondakinak, baina hauek jantoki, eskola, eraikin publiko, eliza, jolas-gune eta abarretan sortuak, “a)” atalean aipatutako baldintzetan prestatuta.
- d) Merkatu, feria, festa publiko, etab.en garbiketetatik sortutako hondakinak, “a)” atalean aipatutako baldintzetan prestatuta.

9. artikulua.

Debagoieneko Mankomunitatean merkataritzako hondakin ez arriskutsuen eta industrietan sortutako etxeko hondakinen kudeaketa ordenantza honetan edo inoiz honen orde onartzen den araudian adierazitako moduan jarritako sistema publikoaren barruan sartuta geratuko dira derrigor, eta honelako hondakinak dituzten hasierako ekoizle edo edukitzaileek ezingo dute lurzoru kutsatuen eta hondakinen inguruko uztailaren 28ko 22/2011 Legearen 17. artikulua 3. hondakin motan jasotako aukera baliatu.

10. artikulua. Atez-ateko bilketatik kanpo gelditzen diren hondakinak.

Kanpoan geratzen dira eta, hortaz, atez-ateko bilketan hartu beharrik ez da egongo, honako hondakin hauek:

- Indusketa produktuak, hareak, lurrak, industrietako errautsak, eta herri-lanetako nahiz lan pribatuetako hondakinak.
- Edozein pneumatiko mota, estalkiak, industri prozesuetako hondakin plastikoak, bernizak, pinturak, kolak, likido korrosiboak, koipeak eta olioak.
- Bidoiak, lata handiak, zumitzak, eta txirbilak.



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

—Inausketa eta lora-zaintzako hondakinak.

—Akabatutako animaliak.

—Altzarien eta tamaina handikoen bilketan: isolatutzat edo bakartzat jo ezin diren altzariak edo etxeak altzariz janztean sortzen direnak, bai eta etxeak altzariz janztean edo etxez aldatzean sortzen diren bilgarriak ere.

—Etxeetan era guztietako obrak eta berrikuntzak egiten dituzten herritar, gremio eta arduradunek sortutako hondakinak, hala nola, egurra, leiho- edo ate-markoak, zokaloak, pertsianak, oholtza, zoruak, moketa, bainuontziak, komun-ontziak, konketak, sukaldeko altzariak, erradiadoreak edo antzekoak eta, oro har, obretan sortzen direnak.

—Mankomunitateak zehaztu gabe dauden beste hiri-hondakin mota batzuk sartu ahal izango ditu aurreko zerrendetan, baldin eta beren ezaugarri bereziengatik edo izaeragatik, hondakinen bilketarako Mankomunitateko zerbitzuak bere gain hartu ezin baldin baditu.

11. artikulua. Derrigorrezko zerbitzua.

Mankomunitatea derrigortuta dago atez-ateko hondakinen bilketa egitera sistemaren ezarpena gauzatutako udalerrietan eta, hortaz, 8. artikuluan adierazitako materialak biltzeko ardura hartuko du, baldin eta ordenantza honetako baldintzak betetzen badira.

12. artikulua. Prestazioak.

Zerbitzu horren egin beharrak honako hauek dira:

—Hondakinak uzteko modu eta tokietatik bilketa ibilgailuetara eraman eta han hustu.

—Hustu ondoren, edukiontzia bere lekuetara itzuli.

—Lan horien ondorioz eroritako hondakinak jaso eta ingurua txukundu, beharra egonez gero.

—Hondakinak zehaztuak dauden tratamendu gunetara edo transferentzia zentroetara eraman eta han hustu, bertan trata ditzaten.

—Zerbitzuaren kudeaketa zuzen eta egokirako Mankomunitateak erabakitako zeharkako lanak.

13. artikulua. Hondakinen jabetza.

1. Hiri hondakinen ekoizleek (sortzaileek) zein dauzkatenek, Ordenantza honetan jasotzen diren baldintzetan utzi beharko dituzte haiek Mankomunitatearen esku; hark, hondakinen jabetza har dezan, une horretatik bertatik.

2. Pertsona horiek ez dute erantzukizunik izango hondakin horiek eragin ditzaketen kalteengatik, baldin eta hondakinak uzterakoan Ordenantza honek dioena eta gainerako lege arauak bete badituzte.

14. artikulua. Zerbitzuaren prestazioa.

Etxeko hondakinen mota guztietako bilketen maiztasuna Mankomunitateak erabakiko du, Udalerrien interesak kontuan hartuta.

15. artikulua. Programazioa.

Mankomunitateak jakitera emango du bilketa zerbitzuaren programazioa: egunak, ordutegiak eta bitartekoak. Hala ere, zerbitzuak izan ditzakeen beharren arabera, interes publikoari begira egokitzen dituen aldaketak egin ahal izango ditu Mankomunitateak, alde aurretik ordutegi, bilketa erak edo maiztasun aldaketan berri emanda. Dena den, larrialdi, ustekabe edo ezinbesteko egoeretan bidezko diren xedapenak emango ditu. Zehaztapenak herritarrei iragarriko zaizkie.



DEBAGOIENEO MANKOMUNITATEA

16. artikulua. Larrialdiak.

Larrialdi egoeretan, direla gizarte-gatazkak, elurteak, uholdeak edo ezinbesteko egoeratik zerbitzua eskaintzerik ez dagoenean, eta Mankomunitateak alde zuzenetik jakinarazten badu, bizilagunek ez dituzte aterako hondakinak, zerbitzua bere onera etorri bitartean, edo Mankomunitateak bidezko aginduak eman bitartean.

17. artikulua. Hiri hondakinak biltzeko gune edo puntuak.

Mankomunitatearekin batera udal zerbitzuek erabakiko dituzte zonalde bakoitzean erabili beharreko biltze guneak eta, haien motak, kopurua eta kokapenak, udalerrien interesak kontuan hartuta.

18. artikulua. Garbiketa.

Edukiontzia garbi eta txukun edukitzea erabiltzailearen ardura izango da.

19. artikulua. Erabiltzaileen eskubideak, betebeharrak eta erantzukizunak.

1. Etxebizitza, merkataritza-gune, biltegi, azoka, ikuskizunetako lokal, ikastetxe, industria eta osasun-establezimenduen jabe edo erabiltzaile guztiek eta, oro har, zerbitzu honen erabiltzaile edo onuradun guztiek:

- a) Mankomunitatearen bilketa-zerbitzua erabiltzeko betebeharra dute.
- b) Hondakinen arloan aplikagarria den araudia betetzeko obligazioa dute, batez ere ordenantza honetan jasotzen dena.
- c) Mankomunitateak edo Udalak eskatuta, hondakinak botatzen duen pertsonak bere burua identifikatzeko betebeharra du.

20. artikulua. Erabilera arauak.

1. Zerbitzuaren erabiltzaileak, hondakin mota bakoitza ondo sailkatuta eta Mankomunitateak horretarako jarritako egun, ordu, modu eta lekuetan utzi beharko du. Horrela ezean, Mankomunitateak ez du hondakin horiek jasotzeko betebeharririk.

2. Debeztatuta dago hondakin likido zein urtzeko modukoak ateratzea.

3. Debeztatuta dago hondakinak nonahi uztea. Erabiltzaileak behartuta daude jarritako ordutegian, lekuetan eta moduan uztera.

4. Debeztatuta dago bilketa lekuak hondatu edo desitxuratu dezakeen edozein ekintza egitea.

21. artikulua. Hondakin organikoen gaikako bilketa.

1. Zerbitzua erabiltzen dutenak behartuta daude hondakin organikoak egutegi eta ordutegi jakin batean uztera, Mankomunitateak horretarako adierazitako modu eta ordutegiaren arabera.

2. Hondakin mota organiko moduan utziko dira Ordenantza honen I eranskineko 1.a puntuan adierazten diren hondakinak bakarrik.

3. Erabiltzaileak Mankomunitateak banatutako ontziak erabiliko ditu, erabiltzailearen aukeran utziz poltsa konpostagarrien erabilera, betiere, Mankomunitateak eskaintzen dituenak badira eta erabiltzaileak bere gain kostea hartzen badu. Ikuskatzea errazteko poltsak irekita egon beharko du.

4. Sortzaile handien kasuen sortutako hondakin kopuruaren neurritik moldatzen den edukiontzi bitartez aterako da hondakina, erabiltzailearen aukeran utziz poltsa konpostagarrien erabilera, betiere, Mankomunitateak eskaintzen dituenak badira eta erabiltzaileak bere gain kostea hartzen badu. Ikuskatzea errazteko poltsak irekita egon beharko du.



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

22. artikulua. Papera eta kartoiaren gaikako bilketa.

1. Zerbitzua erabiltzen dutenak behartuta daude papera eta kartoiak egutegi eta ordutegi jakin batean uztera, Mankomunitateak horretarako adierazitako ondorengo moduetan, herri bakoitzak erabakitakoaren arabera:

- a. Edukiontzia bidez, indibidualak edo atarikoak
- b. Edukiontzia gabe, papera eta kartoiak modu egokian esekitokian jarriz. Kasu honetan debekatua dago kartoi-paperezko ez diren poltsetan papera eta kartoiak ateratzea.

2. Papera eta kartoi moduan utziko dira Ordenantza honen I eranskineko 2.a puntuan adierazten diren hondakinak bakarrik.

23. artikulua. Ontzi arinen gaikako bilketa.

1. Zerbitzua erabiltzen dutenak behartuta daude ontzi arinak egutegi eta ordutegi jakin batean uztera, Mankomunitateak horretarako adierazitako ondorengo moduetan herri bakoitzak erabakitakoaren arabera:

- a. Edozein plastikozko poltsatan.
- b. Udalak banatzen dituen plastikozko poltsa berezietan.

2. Ontzi arin moduan utziko dira Ordenantza honen I eranskineko 3.a puntuan adierazten diren hondakinak bakarrik.

3. Ontzi hauek garbiak utziko dira.

4. Sortzaile handien kasuan, ontzi arinak edukiontzietan aterako dira inongo poltsarik gabe.

24. artikulua. Errefusen gaikako bilketa.

1. Zerbitzua erabiltzen dutenak behartuta daude errefus frakzioa egutegi eta ordutegi jakin batean uztera, Mankomunitateak horretarako adierazitako ondorengo moduetan herri bakoitzak erabakitakoaren arabera:

- a. Mankomunitateak banatutako edukiontzietan.
- a. Edozein plastikozko poltsatan.

2. Errefus moduan utziko dira Ordenantza honen I eranskineko 5.a puntuan adierazten diren hondakinak bakarrik.

3. Pixoiak, konpresei eta, oro har ehunki sanitarioei dagokionez, Mankomunitateak eguneroko bilketa antolatua du. Erabiltzaileek hondakin mota hau plastikozko poltsa itxietan atera beharko dute esekitokira. Sortzaile handiek ere herritarrei ematen zaien zerbitzu bera erabili beharko dute.

25. artikulua. Merkataritza, ostalaritza eta industria

Merkataritza zein ostalaritzako arduradunak behartuta egongo dira hondakinak aurreko artikuluetan adierazten den moduan kudeatzera; hau da, horiek ere hondakinak motaren arabera banatu beharko dituzte eta mota bakoitza 21. artikulutik 24. artikulura adierazten den moduan kudeatu.

26. artikulua. Ekoizle handiak.

Zenbait komertzio, ostalaritza eta enpresetako hondakinek arazoak sor ditzakete hondakinen bilketa-zerbitzuan, batik bat, hondakin horien bolumenagatik. Horregatik, horrelako kasuetan, erabiltzaileak hondakin horiek utzi beharko ditu Mankomunitateak



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

jarritako lekuetan, hondakinak isurtzeko arriskutik kanpo. Edukiontzi horiek homologatuak izango dira eta haiek garbitzeaz eta mantentzeaz erabiltzailea arduratuko da.

Enpresa handiak Mankomunitateak hondakin bilketa zerbitzutik kanpo utz ditzake hondakinaren ezaugarriak edo hondakin kopuruak berak bilketa zerbitzua asko eragozten duenean.

27. artikulua. Larrialdi guneen definizioa eta erabiltzaileak

Larrialdi baten ondorioz, edo ezohiko gertaera baten ondorioz, herritarrak atez ateko bilketa zerbitzua erabili ezin duenean, Mankomunitateak larrialdi zerbitzua eskainiko dio.

Larrialdi guneak hondakin mota bakoitzerako edukiontziz hornitutako erakinak dira, eta itxiak izango direnez, herritarra bertaratzeko Mankomunitateak eskainitako telefono zenbaki batera deituta lortuko du sartzeko beharrezko baimen-kodigoa.

Aipatutako edukiontziak honakoak dira: errefusa, organikoa, ontzi arinak, papera-kartoa, pixoihalak eta ehunki sanitarioak eta beira, azken hau larrialdi gunearen erakinaren kanpoaldean egongo den arren.

28. artikulua.

Larrialdi zerbitzua doakoa izango da.

29. artikulua. Ordutegia eta egutegia.

Larrialdi zerbitzua martxan egongo da urte osoan.

30. artikulua. Larrialdi guneen erabilera.

— Larrialdi gunea atez-ateko bilketa erabiltzeko aukerarik ez dagoen kasu larrietarako da.

— Mankomunitateak emango du bertara sartzeko aukera eta ez ditu ohiko erabilerak onargarritzat joko.

— Mankomunitateak, besteak-beste, ondorengoak hartuko ditu larrialditzat:

- Oporraldi aurretik etxeko hondakin mota guztiak batera atera behar izatea.
- Etxe aldaketagatik hondakin mota guztiak batera atera behar izatea.
- Ospitalizazioagatik hondakin mota guztiak batera atera behar izatea.
- Mankomunitateak arrazoizko ikus ditzakeen herritarren bestelako eskariak.

II. KAPITULUA: Garbiguneak

31. artikulua. Garbigune erabiltzaileak

1. Mankomunitate honen 3 Garbiguneak Debagoienekoek (Leintz-Gatzaga, Eskoriatza, Aretxabaleta, Arrasate, Bergara, Oñati, Elgeta eta Antzuolako herritarrek) bakarrik erabil ditzakete.

1. Merkatariek eta industri txikiak ere erabili ahal izango dituzte Garbiguneko zerbitzuak. Horien kasuan, betiere entregatutako materialek etxebizitzetarako 35. artikuluko kopuru eta mugak gainditzen ez badituzte.

2. Salbuespen gisa, onar daitezke eskualde honetatik kanpoko erabiltzaileak ere, baina aurrez Mankomunitateko Ingurumen Zerbitzuaren baimena baldin badute eta Araudi honetan ezarritako baldintza guztiak betetzen badituzte.

3. Aramaioko (Araba) biztanleek ere erabil dezakete Ibarretako (Arrasate) Garbigunea, Debagoieneko Mankomunitatearen eta Aramaioko Udalaren artean izenpetutako hitzarmena indarrean dagoen bitartean.



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

32. artikulua.

1. Zerbitzua doakoa izango da.
2. 35. artikuluko mugak gaindituz gero, gainditutakoagatik dagokion sarrera tasa ezarri ahal izango du Mankomunitateak.

33. artikulua. Ordutegia eta egutegia.

Garbiguneen funtzionamendu-orduak beste zerbitzuekin batera argitaratuko ditu mankomunitateak.

34. artikulua. Hondakin onargarriak eta nola ekarri.

Araudi honetako 2. eranskinean agertzen dira zein produktu diren garbiguneetan onargarriak eta zeintzuk ez, erabiltzaile bakoitza aintzat hartuz.

35. artikulua. Kopuruak eta mugak.

Bolumena 2 m³-ra mugatzen da, eta pisua 750 Kg-ra asteko eta erabiltzaile bakoitzeko. Mankomunitateak hondakin sortaile mota berezi batzuen kasuan, salbuespenak ezarri ditzake muga horiek gehituz edo gutxituz, bai bolumenean bai pisan.

3.500 Kg-ko baimendutako gehieneko masa (BGM) duten ibilgailuek bakarrik izango dute Garbigunera sartzeko aukera

36. artikulua. Erabiltzailearen betebeharrak.

Erabiltzaileak:

- Instalazioko zaintzaileak agintzen dion guztia bete beharko du.
- Zerbitzuaren funtzionamendu egokirako zaintzaileak eskatzen dion informazioa eman beharko dio (zer-nolako hondakinak dakartzan, gutxi gorabeherako kopuruak, hondakinaren jatorria, identifikazio-datuak, etab.).
- Material desberdinak gaika edo bereizita utziko ditu, bakoitzari dagokion edukiontzian eta lekuan.
- Hondakinak utzi ondoren, ingurua garbituko du, behar izanez gero.
- Egoki eta mantso -mantso ibiliko da ibilgailuz instalazioaren barruan.

III. KAPITULUA. Ekarpene guneak eta miniguneak

37. artikulua. Ekarpene guneen eta miniguneen definizioa eta erabiltzaileak

Atez-ateko bilketa-zerbitzua ordezkatu ahal izango du Mankomunitateak ekarpene gune bidezko bilketa zerbitzu bategatik.

Mankomunitateak baserri eremutan bizi diren erabiltzaile guztiei ekarpene gunerako sarrera emango die.

Debekatua dute zerbitzu hau erabiltzea, Mankomunitateak zerbitzu honen erabiltzailetzat baimendu ez dituenak.

Ekarpene guneak hondakin mota bakoitzerako edukiontziz hornitutako erakinak dira, eta ondoko edukiontzia egongo dira: Gai organikoa, ontzi arinak, paper-kartoi, errefusa eta pixoihalak.

Ekarpene gunerako sarrera, identifikazio pertsonal sistemen bidez egingo da.

Miniguneetan ondoko hondakin motentzat edukiontzia egongo dira: Gai organikoa, ontzi arinak, paper-kartoi, eta errefusa.



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

Miniguneetako edukiontzietan sarrera pertsonalizatua izan daiteke ala ez, jasotako hondakin motaren arabera.

38. artikulua.

1. Ekarpen guztiaren zerbitzua doakoa izango da.

39. artikulua. Ordutegia eta egutegia.

Zerbitzu guztiaren egutegi eta ordutegiarekin batera iragarriko da.

40. artikulua. Organikoaren bilketa.

Mankomunitateak, udalak hala nahi badu, ezarriko duen identifikazio pertsonal sistemaren bidez egingo du hondakin organikoaren bilketa ,

Erabiltzaileek poltsa gabe botako dituzte hondakinak ekarpen guztiaren zein miniguneetako edukiontzietan.

41. artikulua. Erabiltzailearen betebeharrak.

Material desberdinak gaika edo bereizita utziko ditu, bakoitzari dagokion edukiontzian.

Hondakinak uzterakoan, ingurua zikinduz gero, garbi uzteko ardura izango du erabiltzaileak.

IV. KAPITULUA. BILKETA BEREZIAK

I ATALA. Bolumen handiko eta traste zaharren bilketa

42. artikulua. Zerbitzu mankomunatua

Mankomunitateak antolatua du bolumen handiko hondakinen bilketa. Zerbitzu mankomunatu hau erabiltzeko, aurretiaz Mankomunitateari jakinarazi behar zaio, telefonoz edo Mankomunitatearen webgunearen bitartez. Zerbitzua gauzatzeko, hondakinak kalean jarriko dira, Mankomunitateak zehaztutako guztiaren, egun eta orduetan.

43. artikulua.- Bilketa zerbitzua negoziatzailearen figuraren bidez

Halaber, bolumen handiko hondakinen bilketa negoziatzailearen figuraren bidez egin ahal izango da, Hondakin eta Lurzoru Kutsatuei buruzko 22/2011 Legearen, uztailaren 28koaren, 3.k) artikuluan jasotakoaren arabera. Kasu horretan, jabeek negoziatzaileei emango dizkiete hondakinak, azken horiek ezarritako baldintzetan. Edonola ere, negoziatzaileek etxean bertan jaso beharko dituzte hondakinak.

44. artikulua.- Enpresa negoziatzaileen erregistroa

Hondakinak berrerabiltzea sustatzeko helburuarekin, Mankomunitatean bere lurralde eremuan jarduten duten Enpresa Negoziatzaileen Erregistro bat sortuko da. Erregistro



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

horretan izena eman ahal izateko *sine qua non* baldintza izango da hondakinak biltzearen helburua horiek berrerabiltzea izatea.

Mankomunitateak enpresa negoziatzaileen jarduera iragarri ahal izango du, herritarrei aukera hori ezagutarazteko helburuarekin.

II ATALA. Garbigune ibiltaria

45. artikulua.

Mankomunitateak etxeetan sortzen diren hainbat hondakin berezi biltzeko Garbigune ibiltari zerbitzua antolatua dauka.

46. artikulua.

Bilketa berezi hau Mankomunitateak finkatutako puntuetan egiten da.

47. artikulua.

Bilketa berezi hau Mankomunitateak finkatutako egun eta orduan egiten da.

48. artikulua.

Garbigune ibiltarira arau honen 3. eranskinean finkatutako produktuak eraman ahal izango dira.

III ATALA. Kartoi komertziala eta industrial

49. artikulua.

Zerbitzu honekin KARTOI bilketa berezia egingo du Mankomunitateak.

50. artikulua. Erabiltzaileak.

Zerbitzu honen erabiltzaileak komertzioak, ostalariak eta industriak izango dira.

51. artikulua.

Bilketa berezi hau Mankomunitateak finkatutako puntuetan egingo da.

52. artikulua.

Bilketa berezi hau Mankomunitateak finkatutako egun eta orduan egingo da.

IV ATALA. Kale garbiketa

53. artikulua.

Kale garbiketan jasotako hondakinak Mankomunitateak finkatutako tokietara eta eran bideratuko dituzte udalek.



V. KAPITULUA. EDUKIONTZI BIDEZKO BILKETA-SISTEMA

54. Biltzen diren hondakinak.

Edukiontzi sistemaren bidezko hondakin bilketaren barruan ondoko hondakin hauek sartuko dira:

- a) Etxeko kontsumo eta elikadurak sortutako hondakinak eta detritusak, papera, ontziak, bilgarriak (enbalajeak), kartoiak, oinetako edo jantzien hondakinak eta orokorrean edozein etxetan sortutako hondakinak, aurrez Mankomunitateak jarritako egun, ordu, modu eta lekuetan biltzeko.
- b) "a)" hondakin motan aipatutakoen antzeko jatorria dutenak, baina dendetan, industrietan eta zerbitzuetan sortuak, aurreko hondakin motan adierazitako baldintzetan prestatuta.
- c) "a)" hondakin motako berberak, baina hauek jantoki, eskola, eraikin publiko, eliza, jolas-gune eta abarretan sortuak, "a)" hondakin motan aipatutako baldintzetan prestatuta.
- d) Merkatu, feria, festa publiko, etab.en garbiketetatik sortutako hondakinak, "a)" hondakin motan aipatutako baldintzetan prestatuta.

55. Betebeharra

Debagoieneko Mankomunitatean merkataritzako hondakin ez arriskutsuen eta industrietan sortutako etxeko hondakinen kudeaketa ordenantza honetan edo inoiz honen ordean onartzen den araudian adierazitako moduan jarritako sistema publikoaren barruan sartuta geratuko dira derrigor, eta honelako hondakinak dituzten hasierako ekoizle edo edukitzaileek ezingo dute Lurzoru kutsatuen eta hondakinen inguruko uztailaren 28ko 22/2011 Legearen 17. artikulua 3. hondakin motan jasotako aukera baliatu.

56. Bilketatik kanpo gelditzen diren hondakinak.

Kanpoan geratzen dira honako hondakin hauek:

- Indusketa produktuak, hareak, lurra, industrietako errauntsak, eta herri-lanetako nahiz lan pribatuetako hondakinak.
- Edozein pneumatiko mota, estalkiak, industri prozesuetako hondakin plastikoak, bernizak, pinturak, kolak, likido korrosiboak, koipeak eta olioak.
- Bidoiak, lata handiak, zumitzak, eta txirbilak.
- Inausketa eta lora-zaintzako hondakinak.
- Akabatutako animaliak
- Altzarien eta tamaina handikoen bilketan: isolatutzat edo bakartzat jo ezin diren altzariak edo etxeak altzariz janztean sortzen direnak, bai eta etxeak altzariz janztean edo etxez aldatzean sortzen diren bilgarriak ere.
- Etxeetan era guztietako obrak eta berrikuntzak egiten dituzten herritar, gremio eta arduradunek sortutako hondakinak, hala nola hondakina, egurra, leiho- edo atemakoak, zokaloak, pertsianak, oholtza, zoruak, moketa, bainuontziak, komun-ontziak, konketak, sukaldeko altzariak, erradiadoreak edo antzekoak eta, oro har, obretan sortzen direnak.
- Mankomunitateak zehaztu gabe dauden beste hiri-hondakin mota batzuk sartu ahal izango ditu aurreko zerrendetan, baldin eta beren ezaugarri bereziengatik edo izaeragatik, hondakinen bilketarako mankomunitateko zerbitzuak bere gain hartu ezin baldin baditu.



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

57. Derrigorrezko zerbitzua.

Mankomunitateak, 54. artikuluan adierazitako materialak biltzeko ardura hartuko du.

58. Prestazioak.

Zerbitzu horren egin beharrak honako hauek dira:

- Edukiontzia ibilgailuetara eraman eta han hustu.
- Hustu ondoren, edukiontzia bere lekuetara itzuli.
- Lan horien ondorioz bide publikora eroritako hondakinak jaso.
- Hondakinak zehaztuak dauden tratamendu guneetara edo transferentzia zentroetara eraman eta han hustu, bertan trata ditzaten.
- Zerbitzuaren kudeaketa zuzen eta egokirako mankomunitateak erabakitako zeharkako lanak, adibidez edukiontzien garbiketa eta hauen inguruak.

59. Hondakinen jabetza.

1. Hiri hondakinen ekoizleek (sortzaileek) zein dauzkatenek, Ordenantza honetan jasotzen diren baldintzetan utzi beharko dituzte haiek mankomunitatearen esku; hark, hondakinen jabetza har dezan, une horretatik bertatik.

2. Pertsona horiek ez dute erantzukizunik izango hondakin horiek eragin ditzaketen kalteengatik, baldin eta hondakinak uzterakoan Ordenantza honek dioena eta gainerako lege arauak bete badituzte.

60. Zerbitzua ematea.

Hiri hondakin mota guztietako bilketen maiztasuna Mankomunitateak erabakiko du, Udalerrien interesak kontuan hartuta.

61. Programazioa.

Mankomunitateak jakitera emango du bilketa zerbitzuaren programazioa: egunak, ordutegiak eta bitartekoak. Hala ere, zerbitzuak izan ditzakeen beharren arabera, interes publikoari begira egokitzat jotzen dituen aldaketak egin ahal izango ditu Mankomunitateak, alde aurretik ordutegi, bilketa erak edo maiztasun aldaketen berri emanda. Dena den, larrialdi, ustekabe edo ezinbesteko egoeretan bidezko diren xedapenak emango ditu. Zehaztapenak herritarrei iragarriko zaizkie.

62. Larrialdiak.

Larrialdi egoeretan, direla gizarte-gatazkak, elurteak, uholdeak edo ezinbesteko egoeratik zerbitzua eskaintzerik ez dagoenean, eta Mankomunitateak alde aurretik jakinarazten badu, bizilagunek ez dituzte aterako hondakinak, zerbitzua bere onera etorri bitartean, edo Mankomunitateak bidezko aginduak eman bitartean.

63. Hiri hondakinak biltzeko guneak edo puntuak.

Mankomunitatearekin batera Udal zerbitzuek erabakiko dituzte zonalde bakoitzean erabili beharreko bilketa guneak, kopurua eta kokapenak, udalerrien interesak kontuan hartuta.

64. Erabiltzaileen eskubideak, betebeharrak eta erantzukizuna.

1. Etxebizitza, merkataritza-gune, biltegi, azoka, ikuskizunetako lokal, ikastetxe, industria eta osasun-establezimenduen jabe edo erabiltzaile guztiek eta, oro har, zerbitzu honek eragiten dituen erabiltzaile edo onuradun guztiek:

- a) Mankomunitatearen bilketa-zerbitzua erabiltzeko obligazioa dute.



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

b) Hondakinen arloan aplikagarria den araudia betetzeko obligazioa dute, batez ere, ordenantza honetan jasotzen dena.

c) Mankomunitateak edo Udalak eskatuta, hondakinak botatzen dituzten pertsonak, bere burua identifikatzeko obligazioa dute.

65. Erabilera arauak.

1. Zerbitzuaren erabiltzaileak, hondakin mota bakoitza ondo sailkatuta eta mankomunitateak horretarako jarritako ontzietan dagokion egun eta orduan utzi beharko ditu.

2. Debekatuta dago hondakin likido zein urtzeko modukoak ateratzea, erabilitako etxeko olioia izan ezik.

3. Debekatuta dago hondakinak nonahi uztea. Erabiltzaileak behartuta daude ezarritako ordutegian, lekuetan eta moduan uztera.

4. Debekatuta dago edukiontzia hondara edo desitxura ditzakeen edozein ekintza.

66. Hondakin organikoen gaikako bilketa.

1. Horrela erabakitzen den herrietako biztanleek materia organikoa horretarako espresuki jarritako edukiontzian uzteko aukera daukate. Mankomunitateak banatutako poltsa konpostagarriak erabiliko dituzte. Gai organikoa poltsa itxian botako da edukiontzira.

2. Hondakin organiko moduan utziko dira Ordenantza honen I eranskineko 1.a puntuan adierazten diren hondakinak bakarrik.

67. Papera eta kartoiaren gaikako bilketa.

1. Paper eta kartoiaren bilketarako edukiontzi urdinak erabiliko dira. (edo horretara bideratutako lur-azpikoak)

2. Papera eta kartoi moduan utziko dira Ordenantza honen I eranskineko 2.a puntuan adierazten diren hondakinak bakarrik.

68. Ontzi arinen gaikako bilketa.

1. Ontzi arinen bilketarako edukiontzi horiak erabiliko dira. (edo horretara bideratutako lur-azpikoak)

2. Ontzi arin moduan utziko dira Ordenantza honen I eranskineko 3.a puntuan adierazten diren hondakinak bakarrik.

69. Beirazko ontzikien gaikako bilketa.

1. Beirazko ontzikiak bide publikoan horretarako dauden ontzietan utziko dira. Edukiontzi horietan bakarrik utzi ahal izango dira Ordenantza honen I eranskineko 4.a puntuan adierazten diren materialak.

70. Sukaldeko olio bilketa.

1. Sukaldeko olioaren toxikotasunak bilketa berezia eskatzen du. Mankomunitateak olio biltzeko edukiontzi sistema du herri guztietan.

2. Sukaldeko olio nahitaez Mankomunitateak ezarritako sistemaz bilduko da.

71. Pilen bilketa.

Pilen toxikotasunak bilketa berezia eskatzen du. Mankomunitateak pilak biltzeko sistema berezia jarriko du herri guztietan.

Hitzartutako komertzioetan, udaletan eta Mankomunitatearen egoitzetan pilak biltzeko



ontziak erabiliko dira.

72. Arropa erabilien bilketa.

Aprobetxagarriak izan daitezkeen arropa, ehunki, osagarri eta zapatak, nahiz erabat hondatuta daudenak eta beste erabilerarik onartzen ez dutenak, ontzi zurietara eramango dira.

73. Errefus bilketa.

1. 56. artikuluan aipatutako hondakinak izan eta 68. artikulutik 74. artikulurako bilketatik kanpo gelditu direnak bide publikoan ezarritako edukiontzi berdeetan botako dira.

74. Ekoizle handiak.

Enpresa handiak Mankomunitateak hondakin bilketa zerbitzutik kanpo utz ditzake hondakinaren ezaugarriak edo hondakin kopuruak berak bilketa zerbitzua asko eragozten duenean.

III. TITULUA

ZEHAPEN ARAUBIDEA

I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

75. artikulua.

Ordenantza honetan ezarritakoa hausten duten ekintzei zigorra jarriko zaie, ordenantzan honetan bertan ezarritakoaren arabera eta honek garatzen edota osatzen dituen lege xedapenetan ezarritakoaren arabera (Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen zehatzeko ahalmenari buruzko 2/1998 Legea, otsailaren 20koa, Zigorrezko ahalmena gauzatzeko prozedurari buruzko arautegia onesten duen 1398/1998 Errege Dekretua, abuztuaren 4koa, eta Hondakin eta Lurzoru Kutsatuei buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legea).

76. artikulua. Eskumena.

Ordenantza honetan aurreikusitako zigorrak jartzeko ahalmena duen organoa Mankomunitateko Lehendakaria da.

77. artikulua. Arau-hausteen erantzuleak.

1. Honako egoeraren batean dauden pertsona fisiko edo juridikoak izango dira Ordenantza honetan adierazitako arau-hausteen «erantzuleak»:

a) Ordenantza honetako arauak hausten dituzten egintzetako bat zuzenean egitea, beraien izenean edo pertsona juridiko gisa eraturiko enpresen ordezkari edo arduradun gisa.

b) Arautegi hori betetzen ez dela aurreikusi eta eskatzeko legezko betebeharra ez betetzea, eta beraz, a) atalean adierazitako pertsonen ordenantza hauetako arauak hausteko aukera ematea».



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

2. Ordenantza honetan ezarritakoa betetzea aldi berean hainbat pertsonari dagokienean, era solidarioan erantzungo dute diru-zehapenen aurrean, azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, 130.3 artikuluan xedatutakoaren arabera.

3. Aurreko puntuan ezarritakoaren arabera, erantzukizuna solidarioa izango da kasu hauetan:

a) Hondakinen jabeak, edukitzaileak edo kudeatzaileak hondakin horiek legez baimendutakoa ez den pertsona fisiko edo juridiko bati ematen dizkionean.

b) Erantzuleak bat baino gehiago direnean eta horietako bakoitzak dagokion arau-haustean zenbaterainoko partaidetza izan duen zehazterik ez dagoenean.

78. artikulua. Hondakinen titular erantzulea.

1. Hondakinek titular erantzule bat izango dute beti, kasu bakoitzean hondakinen erabiltzailea, sortzailea, edukitzailea edo kudeatzailea izan daitekeena.

2. Erantzukizun administratibotik kanpo geratuko dira, bakar-bakarrik, hondakinak Udaleri eman dizkietenak Ordenantzak eta gainerako araudi ezargarria betez, edota hondakinak horien kudeaketa-lana egiteko beharrezko baimena duten kudeatzaileei eskuratu dizkietenak.

79. artikulua. Ikuskapena.

Hondakin erabiltzaile, sortzaile edo edukitzaileak behartuta daude Mankomunitateko eta Udaletako ikuskapen zerbitzuei laguntzera, zerbitzu horiek beren zereginen barruan egin beharreko kontrolak, azterketak, informazio bilketak edo bestelako lanak behar bezala egin ditzaten.

80. artikulua. Beste administrazioen edota epaitegien aurreko erantzukizuna.

1. Beste administrazioen aurreko erantzukizuna.

Arau-hausleak egindako ekintza beste administrazio publiko baten aurrean hutsegite izan badaiteke, Mankomunitateak berehala emango dio horren berri.

2. Erantzukizun penala. Agintaritza judizialaren esku-hartzea.

2.1. Arau hausleak egindako ekintzak delitu edo hutsegite izan badaitezke, Mankomunitateak agintaritza judizialari horren berri emango dio.

2.1. Ekintza horiek direla eta Mankomunitatean arau-hauste espedientea irekitzen baldin bada, ekintzak agintaritza judizialari bidaliko zaizkio eta zigor prozedura etenda geratuko da, agintaritza judizialak esateko duena esan arte.

Zehatzeko prozedura etenda egonda ere Mankomunitateak egoera lehengoratzeko hartu beharreko neurriak hartu ahal izango ditu.

2.3. Agintaritza judizialak ebazpena eman ondoren, ebazpena absolbitzekoa izan arren, mankomunitateak zehapen-espedientea izapidetzen jarraitu ahal izango du, epaitegiak frogatutzat emandakoak errespetatuz. Dena den, ezingo da



DEBAGOIENKO MANKOMUNITATEA

administrazioaren zigorrik jarri agintaritza judizialak dagoeneko zigortutako arrazoiengatik.

II. KAPITULUA. ARAU-HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK

81. artikulua. Arau-haustek.

Uztailaren 28ko 22/2011 Legearen 49.3 artikulua (46.3.c) artikuluari loturik- Toki Erakundeei ematen dien zehatzeko ahalaz baliatuz, kapitulu honek arau-hauste eta zigortze eskumenak garatuko ditu.

Artikulu horien arabera, Toki Erakundeko titularrak, arau-hauste larria egiteagatik, hots, “edozein hondakin-mota ez arriskutsu kontrolik gabe utzi, bota edo deuseztatzeagatik, ingurumenarentzat kalte edo hondamen larriak eragin gabe edo pertsonen osasuna arrisku larrian jarri gabe, zigor bat jarri ahal izango du, 901 eta 45.000 € bitartekoa”.

82. artikulua. Arau-hauste motak.

Ordenantza honetan jasotakoak ez betetzeak arau-hauste izango dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurugiroa Babesteko 3/1998 Legearen 108. artikuluan eta hurrengoetan, eta Hondakinen eta Lurzoru Kutsatuen 22/2011 Legearen 46. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitakoarekin bat etorritik.

Beste organo eskudun batzuek ezartzen dituzten arau-hausteez gain, hondakinen gaiarekin lotutako ekintzei dagokienez Ordenantza honetan araututako arau-haustek oso larriak, larriak eta arinak izan daitezke.

1. Arau-hauste oso larriak izango dira:

- a) Mankomunitateak dagokion errekerimendua egin ondoren, arriskutsuak eta toxikoak izan daitezkeen hondakinei buruzko informazioa ez ematea.
- b) Hilda dauden animaliak bide publikoan uztea.
- c) Ordenantza honen 11. artikuluan hiri-hondakin gisa salbuetsita dauden hondakinak hiri-hondakinen artean uztea.
- d) Hiri-hondakinak jasotzeko jarritako bitartekoak eta tresnak nahita kaltetzea, zerbitzua suntsitzea edo bertan behera uztea xedetzat duten bitarteko edo moduen bidez.

Halaber, arau-hauste oso larria izango da 2 zigor jaso izana arau-hauste larriagatik urtebeteko epean.

2. Arau-hauste larriak dira:

- a) Hondakinak beste pertsona edo erabiltzaile batek utzi behar dituen lekuan uztea, edo/eta hondakinak nahasten ibiltzea.
- b) Ontziak garbitasun- eta erabilera-egoera egokian ez mantentzea.
- c) Erabiltzaileak, arrazoi justifikaturik gabe eta derrigorrezkoa denean, berak sortutako hondakinak bilketa-zerbitzuaren esku uzteari uko egitea.
- d) Hondakinak jasotzeko bitartekoak funtzional edo estetikoki kaltetzea, betiere aurreko puntuko e) atalean oso larritzat jotzen ez bada.



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

- e) Hondakinak jasotzeko tresnak mugitzea, lekuz aldatzea edo behar ez bezala erabiltzea, betiere, azken kasu horretan, egoera arriskutsuak sor badaitezke edo zerbitzuko langileei hondakin-bilketa zaildu badiezaiekete, administrazioaren alde aurreko baimenik gabe.
- f) Hondakinak kargatu, deskargatu eta garraiatzeko lanak eragozte edo zailtzea.
- g) Hondakinak zuzenean, ibai, erreka edota estolderia- edo saneamendu saretik botatzea.
- h) Saneamendu-sarearekin zuzenean lotuta dauden zabor birrintzaileak erabiltzea.
- i) Hondakin organikoak lurrarekin eta obra-hondakinekin nahastea.
- j) Hondakinak behar bezala utzi ondoren, lapurtzea.
- k) Bide publikoan ibilgailuak (karabanak, karroak, erremolkeak eta antzekoak) abandonatuta uztea.
- l) Merkataritzan erabiltzen diren bilgarriak edo kartoizko kaxak tolestu gabe uztea, edo Ordenantza honetan ezarritakoa bete gabe uztea, betiere horren ondorioz oinezkoen edo ibilgailuen joan- etorria eragozten bada.
- m) Hondakinak utzi dituen pertsona arrazoi justifikaturik gabe ez identifikatzea, Mankomunitateak edo Udalak dagokion errekerimendua egin ondoren.

Halaber, arau-hauste larria izango da 2 zigor jaso izana arau-hauste arinagatik urtebeteko epean.

3. Arau-hauste arinak dira:

- a) Hondakinak mankomunitateak zehaztutako moduak errespetatu gabe, hondakinak uzteko lekuetatik kanpo, edo zerbitzuaren egutegitik edo ezarritako ordutegitik kanpo uztea.
- b) Hondakinak manipulatzeko, horretarako arrazoi justifikaturik gabe.
- c) Hondakinak bide publikoan botatzea.
- d) Lursail publiko eta pribatuetan hondakinak erretzea.
- e) Hondakinak ontziz aldatzea edo mugitzea, horretarako arrazoi justifikaturik gabe.
- f) Bide publikoan aldi baterako jarrita dauden obra-hondakinak biltzeko edukiontzietan hondakinak uztea.
- g) Substantzia likidoak, likidotu daitezkeenak edo isurketak eragin ditzaketenak uztea.
- h) Birziklapenerako aurreikusitako hondakinak jasotzeko zerbitzuari hondakinak bereizi gabe uztea.
- i) Hondakinak inolako antolamendurik gabe uztea, zerbitzuaren funtzionamendu egokia eragotziz.
- j) Garbiguneetatik hondakinak erretiratzea.
- k) Garbigunean hondakinen izaera, kopuru edo jatorriaz eskatutako informazioa ez ematea.
- l) Garbiguneko zaintzailearen aginduak eta eskariak ez betetzea.
- m) Ordenantzaren jasotako gainerako arau-hausteak, arau-hauste larri edo oso larritzat sailkatuta ez daudenak.

83. artikulua. Zigorrak.

1. Aurreko artikuluan jasotako arau-hausteren bat eginez gero, zigor hauek ezarri ahal izango dira:



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

A. Arau-hauste oso larriak egiteagatik:

10.000,01 € eta 45.000 € arteko isunak.

B. Arau-hauste larriak egiteagatik:

2.000,01 € eta 10.000 € arteko isunak.

C. Arau-hauste arinak egiteagatik:

60 € eta 2.000 € arteko isunak, ondorengo xehakapenaren arabera:

- 1. arau-haustea: 60 € eta 600 € arteko isunak.
- 2. arau-haustea: 601 € eta 2.000 € arteko isunak.

2. Zigorak ezartzeko, honako alderdi hauek hartuko dira kontuan: arau-haustea egin duen pertsonaren zirkunstantziak, erru maila, araua behin eta berriz hautsi izana; parte hartze maila eta lortutako onura, eta ingurumenari eragindako kaltearen neurria edota pertsonen osasuna kaltetzeko eragindako arriskua.

3. Zigorra ezartzeaz gain, Mankomunitateak eskubidea izango du kalte-galerengatik dagokion ordaina eskatzeko.

4.- Administrazio Publikoen Administrazio prozedura Erkidearen, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 85 artikuluan jasotakoaren arabera, zehapen-prozedura bat hasitakoan, arau-hausleak bere erantzukizuna aitortzen bada, dagokion zehapena ezarriz ebatzi ahal izango da prozedura.

Zehapena diruzkoa soilik baldin bada, ustezko erantzuleak ebazpena baino lehenagoko edozein unetan borondatez ordaintzeak amaitu egingo du prozedura, salbu eta aldatutako egoera lehengoratzeari dagokiona edo arau-hausteagatik sortutako kalte eta galeren ordaina erabakitzeari dagokiona.

Bi kasuetan, zehapena diruzkoa soilik denean, prozedura ebazteko eskumena duen organoak %25eko murriztapenak aplikatuko ditu proposatutako zehapenaren gainean, eta murriztapenak elkarrekin bateratu daitezke. Hauetaz baliatzeko, zehapenaren aurka administrazio-bidean jarritako akzio edo errekursoetan atzera edo uko egin beharra dago.

84. artikulua. Arau-hauste eta zehapenen preskripzioa.

Arau-hauste oso larriak hiru urte igarota preskribituko dira, larriak bi urte igarota eta arinak sei hilabete igarota. Arau-hauste oso larriengatik ezarritako zehapenak hiru urteren buruan preskribatuko dira, arau-hauste larriengatik ezarritakoak bi urteren buruan eta arau-hauste arinengatik ezarritakoak urtebeteren buruan.

85. artikulua. Jarduketa osagarria.

1. Jartzen den zehapena jartzen dela, arau-hausleak behartuta daude gauza guztiak arau -haustea egin aurreko egoerara itzularaztera eta lehengoratzera.

2. Arau-hausleek, aurreko atalean ezarritakoa alde batera utzita gauzak lehengoratzen edo arau-haustea egin aurreko egoerara itzularazten ez badituzte, zehapena jartzeko eskumena duen organoak hertsatzeko isunak jartzea erabaki ahal izango du, Herri



DEBAGOIENKO MANKOMUNITATEA

Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 99. artikulua araberak, dagokion errekerimenduan ezarritako epeak igaro ondoren.

Isun horietako bakoitzaren zenbatekoa ezingo da izan egindako arau-haustearengatik jarritako isunaren herena baino gehiagokoa.

3. Bestalde, kasu hauetan, eta lehengoratzeko lanak egiten ez badira, mankomunitateak betearazte subsidiarioari ekin ahal izango dio, arau-haustearen kontura eta kargura.

4. Zehapenen kopurua, kalte-ordainen kopurua eta lehengoratzeko lanen kostu ekonomikoa premiamenduzko administrazio bidea erabiliz exijitu ahal izango dira, dagozkion ebazpenak bide horretan finkoak direnean.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Ordenantza honetan aurreikusi ez diren gai guztietan uztailaren 28ko 22/2011 Hondakinen eta Lurzoru Kutsatuen Legeak xedatutakoari men egingo zaio, baita aplikagarri izan daitezkeen gainerako araudiei ere.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Ordenantza hau indarrean sartzen denean indargabetuta eta ondorioz gabe geldituko dira bere mailako edo gutxiagoko xedapen, araudi eta ordenantzak, baldin eta honek dioenaren aurkakoak edo kontrajarriak badira.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau indarrean sartuko da bere testu osoa behin betiko gisa Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hamabost lanegun igaro ondoren.

I ERANSKINA

HONDAKIN MOTA BAKOITZEAN SARTZEN DIREN

HONDAKINEN ZERRENDA

1. Organikoa.

a) Konpostatzeko egokia den udal-hondakinen zati organikoa honakoa da:

- Animalia-janariaren hondarrak, bai gordinak, bai prestatuak.
- Landare-janariaren hondarrak, bai gordinak, bai prestatuak.
- Paperezko ezpain-zapiak, sukaldeko papera eta paperezko mantelak, materia organikoz zikinak (janariaren hondarrak, landare-olioa, etab.), paperezko zapi



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

erabiliak eta ostalaritzan behin erabili eta botatzeko paperezko erretiluak, platerak eta ontziak

- Kafe-hondarrak, infusioen zakuak.
- Marisko-oskolak, fruitu lehorren azalak eta arrautza-azalak.
- Animalien (arrainenak barne) eta fruituen hezurak.
- Loreak eta landareak.
- Soropila (gutxi, hobeagoa da autokonpostatzea).
- Txotxak, erabilitako pospoloak, zerrautsa (gutxi) eta kortxo naturalaren tapoiak.
- Tratatu gabeko egurraren errauts hotzak.

b) Zati organikotik material hauek baztertzen dira eta, beraz, jomuga desberdinak izango dute.

- Animalien gorozkiak, errefus-ontzira.
- Plastikozko kortxo-tapoiak, ontzietara.
- Konposta ezin daitezkeen pixoihalak, konpresa eta tanpoiak, errefusera.
- Zigarro-mutxikina, errefusera.
- Erraztearen hautsa, errefusera.

2. Papera/kartoa.

a) Materiala birziklatzeko udal-hondakinaren paper/kartoi zatitzat honakoa jotzen da:

- Egunkarien papera, aldizkariak, publizitate-liburuxkak, bai zuri-beltzekoak, bai kolorekoak.
- Gutun-azalak, folioak, bulegoko paperaren gainerako materialak.
- Ostalaritzan behin erabili eta botatzeko paperezko erretiluak, platerak eta ontziak.
- Paper garbiaren ezpain-zapiak eta mantelak.
- Kartoizko kaxak.
- Arrautza-ontziak, jogurtak eramatekoak, kartoizko komuneko paperaren zilindroak.
- Kartoizko bilgarriak eta babesleak.

b) Paper/kartoiaren zatitik hurrengo materialak baztertzen dira eta horiek honako jomugak izango dituzte::

- Material ez-organikoz osatutako paper Zikina: errefusera.
- Paperezko ezpain-zapiak, sukaldeko papera eta paperezko mantelak, materia organikoz zikinduak badaude, eta paperezko zapi erabiliak: organikora.
- Gomaz osatutako papera, paper plastifikatua: garbigunera.
- Klipak, grapak, errefusera edo kopuru handietan: garbigunera.

3. Ontzi arinak.

a) Berreskuratze-plantan hautatu eta, ondoren, birziklatzeko udal-hondakinetatik honakoak dira ontzi arinak, betiere elikagaik edo etxeko garbiketa produkturik ez badituzte eta garbituak badaude:

- Aluminiozko eta burdinazko edari- eta kontserba-latak.
- Tetrabrikak.
- Plastikozko edari- eta elikagai-botilak.
- Plastikozko etxeko garbiketa-produktuen botilak eta ontziak.
- Behin erabili eta botatzeko plastikozko edalontziak, platerak, mahai-tresnak.



DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEA

- Poliestireno zabalduaren (porexpana) elikagai-erretiluak.
- Aluminiozko elikagai-erretiluak eta aluminiozko gainerako materialak, elikagaiekin erabiltzeko badira.
- Jogurt-ontziak, plastikozko flanak beren estalkiekin.
- Beirazko ontzien metalezko estalkiak.
- Hortz-pastaren tutuak eta plastikozko kosmetika-ontziak.
- Izoztuen poltsak eta, oro har, plastikozko poltsa guztiak, baita elikagaientzako film plastikoa ere.
- Paper plastifikatua.

b) Ontzi arinen zatitik hurrengo materialak bazterten dira eta honako jomugak emango zaizkie:

- Pintura-lata erabiliak: garbigunera edo garbigune ibiltarira.
- Disolbatzaileen lata eta botila erabiliak: garbigunera edo garbigune ibiltarira.
- Sendagaien ontziak: farmaziara edo anbulatoriora.
- Plastikozko jostailuak eta, oro har, plastikozko edozein material ontzia ez bada: garbigunera.

4. Beirazko ontziak.

a) Berreskuratze-plantan hautatu eta, ondoren, birziklatzeko udal-hondakinen beira-ontziak honako hauek dira, betiere elikagaiak edo etxeko garbiketa-produktuak ez badituzte eta garbituak badaude; ez da beharrezkoa botiletatik lepoko apaingarriak kentzea, ezta botilak betetzea saihesten duten mekanismoak ere:

- Edozein koloretako beirazko botilak.
- Edozein koloretako beirazko kontserba-poteak.
- Kosmetika-produktuen beirazko ontzia.

b) Beira-ontziaren zatitik honako materialak bazterten dira eta hurrengo jomuga emango zaie:

- Kortxo naturalaren tapoiak: organikora.
- Plastikozko kortxo-tapoiak: ontzi arinetara.
- Beirazko ontzien metalezko estalkiak: ontzi arinetara.

5. Errefusa.

a) Udal-hondakinetatik errefusak dira gaikako bilketaren eta birziklapenaren zirkuitu berezia ez duten materialak. Errefusaren hondakin zatian ezegokiak izango dira birziklagarriak diren materialak. Beraz, Errefusa dira:

- Zeramikazko katilu eta plater puskatuak.
- Erraztearen hautsa, aspiragailuaren poltsa beteak eta zigarro-mutxikinak.
- Ileak, azazkalak, makillajea kentzeko kotoiak, hortzetako haria, depilatzeo argizaria, bizar-aitzurra, belarri-bastoia, preserbatiboak, etab.
- Birzikla eta berrerabil ezin daitezkeen pixoihalak, konpresak eta tanpoiak.
- Biberoiak, tetinak, txupeteak, edoskitze-diskoak.
- Egurraren errauts hotzak.
- Idazteko material gastatua.
- Animalien gorozkiak eta katuentzako lurra.
- Sendaketa-hondarrak, esparatrapuak, gasak, tiritak.
- Ur-iragazkien ikatz aktiboa.



DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEA

- Kreditu-txartel erabiliak, pizgailu erabiliak.
 - Esekigailuak kopuru txikietan, kopuru handietan garbigunera.
- b) Errefus-zatitik hurrengo materialak baztertzen dira eta horiei honako jomuga emango zaie:
- Disolbatzaileen eta pinturen hondarrak: garbigunera edo garbigune ibiltarira.
 - Etxetresna elektriko txikiak: garbigunera edo garbigune ibiltarira.
 - Pilak eta metagailuak: garbigunera, garbigune mugikorrera edo pilen bilketa-puntuetara.
 - Tamaina handiko tresnak eta traste zaharrak: traste zaharren bilketa zerbitzura edo garbigunera
 - Kasete- eta bideo-zintak: garbigunera edo garbigune ibiltarira.
 - Bonbilla goriak, fluoreszenteak eta behe-kontsumoko bonbillak: garbigunera edo garbigune ibiltarira.
 - Kimaketa: garbigunera.
 - Plastikozko jostailuak: garbigunera.

II ERANSKINA

GARBIGUNEETAKO HONDAKINEN ZERRENDA eta mugak

Etxeetako hondakinak, etxeetan lan txikiak egiten dituzten gremioek (igeltseroek, iturginek, etab.ek) sortutakoak, baita dendek, ostatuek eta bulegoek sortutakoak ere, onartuko dira.

Ez dira onartuko industri jatorriko edo lan eta obra handietako hondakinak. Hala ere, industri jardueran sortutako hondakinak onar daitezke Garbiguneetan, aurrez Ingurumen Zerbitzuaren baimena baldin badute, betiere produkzio-prozesuaren edo industri jardueraren ondorio ez badira, hondakin horiek hiri-hondakinen pareko badira eta Araudi honetako gainerako betebeharrak betetzen badira.

Honelako hondakinak onartuko dira:

- Sukaldeko olio erabiliak: Ontzi itxietan.
- Motor-olioak: Ontzi itxietan. Ez dira onartuko konponketa-lantegi eta antzekoetako olioak. Eta erabiltzaile eta hil bakoitzeko 25 litro onartuko dira gehienez ere. Ez dira onartuko produktu hauek saltzen diren dendetatik eratorritakoak ezta industriakoak.
- Metagailu edo akumuladoreak: Bateria agortuak eta metagailuak oro har.
- Aerosol-ontziak beteak edo erdi beteak. Herritarrak ez direnen kasuan, soilik etxeetan erabiltzen direnen parekoak jasoko zaizkie, eta gehienez 10 unitate hilean.
- Inprimagailuen toner-karkasak, CDak, disketeak, bideo-zintak eta antzekoak. Inpresio hornigaiaren dendetatik eratorritakoak ez dira onartzen, ezta inprimategi eta grafikagintza lanetan diharduten jardueretatik eratorritakoak.
- Ke-detekttagailuak, soilik etxeak.
- Linea zuriko etxetresna elektrikoak: Ikuzgailuak, hozkailuak, etab. Ez dira onartzen elektratresna industrialak, ezta elektratresnak ekoizten dituzten enpresen produkziozko soberakinak.
- Linea gris-marroiko etxetresna elektrikoak: Telebistak, ordenagailuak, etab. Etxe batean sortu daitezkeen hondakinen parekoak direnak soilik. Industrien kasuan, gehien jota ekipo oso bat hileroko (kaxa, sagua, teklatura, pantaila, inprimagailua).



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

- Fluoreszenteak: Beren ontzikietan, gehienez 100 un/hilean.
- Geldoak: Etxeetako lan txikien hondakinak, lurrak, errautsak, kristalak, etabar. Hondakin hauek onartu ahal izateko, udalak emandako obra baimena edo baliokidea den beste agiriren bat erakutsi beharko da. Baimenik gabe, erabiltzaile bakoitzak gehienez hondakin hauen 100 litro eraman ahal izango du garbigunera hilabete bakoitzeko. Dena dela, hilabeteren batean 100 litroko muga honetara iritsiz gero, hurrengo 4 hilabeteetan ezingo du honelako hondakinik eraman.
- Zur garbia: Bilgarriak, taulak eta antzekoak, pinturarik, bernizik, itxiturarik edo elementu arrarorik (plastiko, paper, zabor, etab.ik) gabeak. Ez da onartutako, industrietatik eratorritakorik.
- Zuhaitz-adarrak, belarrak, sasi eta antzekoak, gehienez 8 cm-ko diametrokoak, sortzaile handi eta udal zerbitzuetakoak salbuetsita.
- Zur zikina: Zurezko altzariak eta zurezko beste elementu batzuk ,pinturak, bernizak eta antzekoak dituztenak (armairuak, aulkiak, kaxak, oholak, etab.). Altzarietara beira kendu behar zaie eta hondakinen edukiontzian utzi.
- Pneumatikoak: Motorizatu gabeko ibilgailuen gurrpil-azalak (bizikletak, trizikloak eta antzekoak), metalezko zatiak kenduta. Ez da onartuko pneumatikoak eta antzekoak konpondu, saldu edota aldatzeko tokietatik ekarritakorik.
- Metalezko beste gauza batzuk: Erradiadoreak, bizikletak, aulkiak, etab.
- Papera eta kartoia: Bilgarriak, aldizkariak, karpetak, etab.
- Etxetresna elektriko txikiak: Irabiagailuak, txigorgailuak, Telefono mugikorrek etab. Ez dira onartzen etxetresna txiki hauek ekoizten dituzten enpresen produkziozko soberakinak.
- Pestizida eta antzekoak: Ontzi itxietan. Ez dira onartuko produktu hauek saltzen diren dendetatik eratorritako produktu galduak edo iraungituak. Gehienez 10 l/hilean.
- Pilak: Mota guztietako pilak.
- Pinturak eta disolbatzaileak: Ontzi itxietan, gehienez 50 l/hilean. Ez dira onartuko produktu hauek saltzen diren dendetatik eratorritako produktu galduak edo iraungituak, ezta industrietatik datozenak.
- osagai arriskutsuak izan dituzten ontziak: 10 ontzi hilean gehienez, eta ez dira onartuko jatorri industrialekoak.
- Plastikoak: Ontziak, botilak, jostailuak, bildukiak eta hondakinak oro har.
- Etxeko garbigarriak eta beste kimiko batzuk: Ontzi itxietan eta ondo identifikatuta. Ez dira onartuko produktu hauek saltzen diren dendetatik eratorritako produktu galduak edo iraungituak, ezta laborategietatik ekarritakoak.
- Erradiografiak. Ez dira onartzen osasun zentro publiko edo pribatuetatik eratorritakoak.
- Termometroak.
- Beira: Botilak, poteak, beirazko flaskoak.
- Aprobetxagarriak izan daitezkeen arropa, ehunki, osagarri eta zapatak, nahiz erabat hondatuta daudenak eta beste erabilerarik onartzen ez dutenak .



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

III ERANSKINA

GARBIGUNE MUGIKORRAREN ERABILERA MUGAK ETA HONDAKINEN ZERRENDA

Etxeetan sortutako ondorengo hondakinak onartuko dira.

Beste jatorri batekoak badira, esaterako komertzio edo gremioak, onartuko dira, betiere kopuru txikietan badira.

Honelako hondakinak onartuko dira:

- Motor-olioak: Ontzi itxietan. Ez dira onartuko konponketa-lantegi eta antzekoetako olioak. Eta erabiltzaile eta hil bakoitzeko 25 litro onartuko dira gehienez ere.
- Metagailu edo akumuladoreak: Bateria agortuak eta metagailuak oro har.
- Aerosol-ontziak beteak edo erdi beteak.
- Inprimagailuen toner-karkasak.
- CDak, disketeak, bideo-zintak eta antzekoak.
- Ke-detektagailuak.
- Fluoreszenteak: Beren bilgarrietan. Erabiltzaile eta hil bakoitzeko 100 ale onartuko dira gehienez ere.
- Etxetresna elektriko txikiak: Irabiagailuak, txigorgailuak, etab.
- Pestizida eta antzekoak: Ontzi itxietan.
- Pilak: Mota guztietako pilak.
- Pinturak eta disolbatzaileak: Ontzi itxietan.
- Etxeko garbigarriak eta beste kimiko batzuk: Ontzi itxietan.
- Erradiografiak.
- Telefono mugikorrak.
- Termometroak.
- Beira: Botilak, poteak, beirazko flaskoak.
- Etxeko olioak

IV ERANSKINA

HONDAKINAK BOTATZEKO, EGUNAK ETA ORDUTEGIAK

- Garbiguneak
 - Arrasate
 - Bergara
 - Oñati
- Garbigune Mugikorra
 - Antzuolan
 - ...
 - Oñatin
- Atez-ateko bilketa-zerbitzua



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

- Antzuola
 - Organikoa
 - Papera eta kartoia
 - Ontzi Arinak
 - Errefusa
 - Beira
 - Arropa
 - Pilak
 -
- Bergara
- Oñati
- Edukiontzien bidezko bilketa-zerbitzua
 - Organikoa
 - Papera eta kartoia
 - Ontzi Arinak
 - Errefusa
 - Beira
 - Arropa
 - Pilak

EGINBIDEA.- Ordenantza honi Mankomunitateko Gobernu Juntak, 2019ko otsailaren 19an egindako bilkuran, eman zion hasierako onespena.